

## egunekoa

Ramon Zallo

(EHUko katedraduna)

## Estatutua, markoaren erreforma eta ETA

Uztailaren 12an bi erabaki oso garrantzitsu hartu ziren Eusko Legebiltzarrean; bata zein besteak, bereziki bigarrenak, epe erdiko estrategia zehazten dute. Eta badute gauza berri bat: EAE ordezkatzeko duen guneak bere egin ditu, eta ez dira adierazpen huts bat -1990eko autodeterminazio eskubidearen gainekoa bezala-, baizik eta erakundeak behar direnak betetzea galdegiteko, transferitu gabeko eskumenak bereganatzeko eta ordenamendu juridikorako beste proiektu bat lantzen has-teko hartutako konpromisoa.

Batzuei alferrikakoa irudituko zaie indarreko estatutu osoa eskatzea beste proiektu bat iragartzen ari denean. Eta, alderantziz, beste batzuei batere koherentziarik gabekoa irudituko zaie beste proiektu bat prestatzea oraindik aurrekoa betetzeko eskatzen ari denean. Eta, hala ere, bi ebazpenek batasun bat osatzen dute.

## Lehen erabakia

Indarreko estatutuari buruzko erabakia, kon-tabilitatean ekitaldi luze bateko (23 urteko) ondasun-balantzetan hartzen denari dago-kio. Autogobernu aktibo garrantzitsu batzuk daudela egiaztatzen du, baina kapital propioaren zati bat besteren kapitala balitz bezala pasiboan dagoela salatzen, eta autogobernuaren titulartasuna hipotekatu egiten duela. Iruzurra dago estatuaren bidegabeko jabetze-arekin.

Jakina, estatuak hasieratik izan zuen nagusitasunezko jarrera hierarkikoa, ituna ez baitzen berdinen artekoa. Baina haren adminis-trazioa alde bakarrekoa izan da. Hortaz, no-labait esatearren, ituna hautsi egin da, beste joko-taula bat jarri da, eta behin eta berriz aldatu da alde biko harremanetako alderdi kontratugileetako baten estatua. Eta hona-ko hauek izan dira horretarako bidea: eskumen murrizketak, estatuko oinarrien legeak, Konstituzionalaren sententziak, EAEko Legebiltzarrak hartutako erabakiei zilegitasun guztia kentzea (presoak...) edo alde bakarre-ko erabaki larriak, Alderdien Legea esate ba-terako. Esandakoari, gainera, gehitzen bazaio oraindik eman gabe daudela transferentzia garrantzitsu batzuk, eta, are gehiago, inoiz ez direla lortuko harremanak nola dauden ikusi-ta, aktiboan oraindik kitatu gabeko zor gisa agertzen direnak jadanik zor kobraezinak dira, benetako galerak. Hau da, gainera, ez dira bete zenbait egin behar.

Hainbat arazo daude estatutua osorik be-tetzeko eskatzen jarraitzeko. Lehenik eta behin, uko ez egiteko hasierako legitimitateari, zein gutxieneko batzuetan oinarrituta bai-tago, EAEn gehiengoak berretsi zituenak -beste askori gustatu ez zitzaigun arren-, eta orain dela 23 urte beste alderdi kontratugileak onartu. Bigarrenik, indarrekoa eta lortzeke dagoena beharrezkoa denaren zatia izango dira -adibidez, gizarte segurantzia eta enplegu politikak- beste edozein autogobernu esparrutan. Hirugarrenik, beharrezkoa da euskarri eta segurtasun juridikoak izatea guztizko au-togobernuran, subiranotasuneranzko bide luzean, eta, halaber, kanpamentu nagu-

sia ez desegitea beste gailur batzuei ekiteko orduan, eta etsaiari gizarte oinarri moderatu-rik ez oparitzea, ezinbestekoak direlako gehiengoak lortzeko. Azkenik, eskakizun hori egiteak barrearen ispilu deslegitimatailea jar-tzen du orain, PSOE eta PP bezala, estatutuaren ahalmena mende laurdenean hondatu ondoren haren aitzindari gisa agertzen dire-nen aurrean. Hitz batean, iragarritako urratse-tan segida logiko bat dago, eta erantzukizun instituzionalaren erabilera beranduko baina pozgarria: salatzea ondarearen zati bati da-gozkion eskriturak bereganatu dituen, or-daintzen ez duena izateaz gain; norberarena eskatzea, eta ahal dena gauzatzea tartean transferentziarik izan gabe; eta gatazka ego-er dagoela adieraztea, etorkizunerako beste-lako autogobernu eredu bat, akordio gogobe-tegarriago eta seguruago batzuk birformula-tzeko.

## Bigarren erabakia

Bigarren erabakia oso garrantzitsua da, argi adierazten duelako beharrezkoa dela euskal gizarte eta erakundeetatik abiatuta ordena-mendu juridikorako beste proiektu bat edo batzuk izateko prozedurei ekitea. Oraingo hau ez da balantze bat, irteteko pistola-tiro bat baizik, EAE ordezkatzeko duen erakundeak egina etorkizuna gogoan duela, Lizarrako ka-suan bezala alderdi eta erakunde batzuen nahi hutsa izan beharrean. Alde horretatik -baina ez aliantzen ikuspegitik-, erabakia as-koz garrantzitsuagoa da. Lizarrako akordio-ak, frogatu ahal izan zenez, baldintzatuta zeu-den, eta guztiz desagertu ziren su-etena -zen-tzuzko motiborik gabe- hautsi ondoren, baina erabaki parlamentario hauek erabakiak hartu dituztenen ekimen bat dira, bere formu-lazioan beste inork baldintzatzen ez duena. Gauzatze orduan, ordea, egoerak baldin-tzatuta daude, gero eta zailagoa eta aurrei-kusteko nekezagoa delako.

Plan bat baino gehiago, horizonte strate-giko bat da, non proiektu guztiak mugitu be-harko baitira, oraingo EAerako izango den birsortze-bide batean. Eusko Legebiltzarrak, indarreko arau instituzionalan oinarrituta, eta hain zuzen ere bere mugak gainditzeko, subiranotasuneranzko legitimazioaren bidea egitea hautatu du. Ez du zehaztu ez edukirik ez prozedurarik. Honako hauek besterik ez du egiten: printzipioak adierazi (kontsulta-tuak izateko eskubidea erabaki ahal izateko), posizioak zehaztu (Euskal Herriaren horizon-tea subjektu politiko gisa; eskumen multzoa berritzea euskal gizartearen borondateari egokituta; autogobernua sakontzea; ordena-mendu juridikorako beste proiektu bat lan-tzen eta garatzen hastea), eta prozesuaren antolaketa eragilea finkatu (Eusko Legebil-tzarra).

Eragile guztiak konturatu behar dute hori dela prozedura. Ezingo dela besterik izan, hi-potetikorik edo hoberik. Hortaz, edo hartu egiten da, hartan subiranotasuneranzko bi-dean eragiteko, betiere argi izanda desberdi-nen arteko elkartzeko bat dela, eta inork ez dio-la uko egin nahi desberdin izateari, edo, bes-tela, gutxi batzuek -hiruko indarre-

kudeatzen uzten da, porrot egin dezaten, be-ren indar soilekin ezingo dutelako burutu, eta, ondoren, agian, beste garai baterako gordeta geldituko da. Indarrak metatu gabe ezingo da benetako proiekturik izan. Eta hori ezinezkoa da eraso armatuekin, zeinek, gai-nera, legitimazioa urratzen baitute.

## Su-etenen beharra

Egungo datuak ikusita, irailetik aurrera ego-er ezin txarragoa izango da, herri gabezia-koa: Batasuna legez kanporatzeko bidean; ETA Euskal Herriko PSE eta PP biktimita-tzen -horiek batez ere, baina ez bakarrik-, eta iritzi publikoak traumatizatzen; Eusko Jaurlaritza harea mugikorretan higitzen; Es-painiako Gobernua udal hauteskundeak, era-kundeak ez esateagatik, bertan behera uztea lortu nahian. Hitz batean, muturreko egoera edozein proiektu eraikitzaileentzat. Edozer gertatuta ere mundu guztiak ahal duena egingo duen arren -batzuek subiranotasu-naren aldeko joerako Herri Ekimen Legegile baten beharra proposatu dugu-, egoera erro-tik alda liteke su-etenen luzea egongo balitz. Egia da Espainiako Gobernuaren jarrerak eta Alderdien Legeak ezin dutela bultzatu ETA bide horretatik jotzera. Orain su-etena egingo balitz, Batasuna legez ez kanporatzeko azken ahaletzat hartuko litzateke, edo kanpotik egindako presioaren garaipentzat. Baina logi-ka hori aparatuko da, su-etena eskakizun eti-ko iraunkor bezain baztertu batzuen ondorioz -ez ditut aipatuko, askotan egin baitut- ezin-bestekoa delako, eta komenigarria egiturazko eta egoerazko arazoengatik.

Egiturazko arazoiei dagokienez, konpon-du beharreko gaien ikuspegitik, egungo eta-pa estatutu ondoko trantsizio politikokoa da, baina baita ETA ondoko ere, ez berehala desagertuko delako, independentismoaren-tzat eta ezkerreko abertzaletasunarentzat be-tetzen duen eginkizun estrategikoa bukatu delako baizik. Ezker abertzalean prozesu au-tosuntsizaille bat eragiten du (zatiketak, hau-teskunde galera, sinesgarritasuna galtzea, aliantzak apurtzea). Organoak funtzioa dese-giten du, eta azkenean, Saturnok bezala, bali-teke bere seme-alabak hiltzea.

Egoeraren ikuspegitik, egungo Eusko Le-gebiltzarrean abiatutako prozesua itxaro-pentsua da, eta egiturazko oso ondorio ga-rantzitsuak izan ditzake egungo egoera iraultzeko, 1998an bezala. Su-etenarekin, bultzada handia hartuko lukete bakearen, normalizazioaren eta esparrua aldatzearen aldeko prozesuek, ordezkaritza legitimoak sustatuta.

Mahai Nazionalak Bake Konferentziaz za-baldutako iritzian (2002ko ekaina), garrantzi-tsuena "aldatzeko borondatea" zela esan zuen, eta "noiz eta nola egin bigarren mailako kontua". Erabakien inguruan agertutako abs-tentzio jarrera bat etorri zen planteamendu horrekin. Orain, beharrezkoa da ETA ere ko-herentea izatea. Erabaki handiak hartzeko garaia da. Arazoari heldu edo porrot egite-koa.

## zutabea

Ana Arregi

## This is England

Lehen Ingalaterraz oroitzen nintzenezan malenkonia eta zelai berdeak zetozkidan burura; orain, aitzitik, Ingalaterra irudikatzen dudanean supermerkatuak ikusten ditut. Nire ustez, Ingalaterran daude supermerkatuak zoragarrienak. Badakit, hala ere, Estatu Batuetako supermerkatuen ondoan hauek ezer ez direla izango baina nik ez ditut hangoak ezagutzen, beraz hauetan sartzen naizenean aho zabalik geratzen naiz.

Ingalaterrako supermerkatuetan denetarik aurki dezakezu. Fruiturik exotikoenak hemen daude, paradisuan baino txukunago, eta marrubiak, meloiak, gereziak, mazustak, nonahi dira. Gaztak herri guztietakoak dituzte, eta ardoen sekzioan geografia ikas dezakezu, mapa berri bat marraztu ardoak nola dauden kokatuta kontutan hartuta.

Ingalaterrako supermerkatuetan gehien gustatzen zaidan sekzioan mila txokolate daude. Aitortu behar dut ez naizela txokolatzale handia, gutxitan erosten dut txokolatea, baina hemengo supermerkatuetan txundituta geratzen naiz azaleko koloreekin. Hau bai dela koloreen sinfonia! Gorriak, laranja, morauak, berdeak, arrosak... guztiak distiratsuek! Usaina ere darie kolorezko paperei! Gainera arreta handia ipintzen dute sekzio hau apaintzerakoan. Joan den astean zurezko gurdi batean kokatu zituzten txokolate dirdiratsuenak eta gurdi osoa ia eramatekotan egon nintzen. Baina zer egingo nuke nik hainbeste txokolaterekin, kolorezko paperez soineko liluragarria egin eta gero?

Lehen ingelesak nahiko argalak zirela pentsatzen nuen. Larunbatetan telebistan ikusten genuen filmeetan ingelesak estuenak ziren beti, baina orain metroan sartu bezain pronto konturatzen naiz garaiak aldatu direla. Gaur egungo ingeles askok arazoak dituzte elikadurarekin. Hala esan zuten BBC-eko albistegian joan den astean. Berri hau eman baino lehen, Afrikako goseteaz jakin izan genuen eta irudi gogorrak ipini zituzten. Zuzenean eta txintik esan gabe, aurkezleak hurrengo berriari ekin zion. Bata bestearen atzean.